


# 37°C, osasunaren eta gaixotasunaren arteko muga



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**L**eipzig (Alemania), 1850. Carl Reinhold August Wunderlich (1815-1877) mediku eta psikiatra aitzindaria hiri horretako unibertsitateko irakasle eta ospitaleko zuzendari izendatu zuten. Pedagogia klinikoa landu zuen bertan, baita diagnosi metodologia zorrotza eta pazienteen behaketa enpirikoa ere. Pazienteen temperatura neurtzen jarri zuen bereziki arreta, eta sukarra gaixotasuna ez zela aldarrikatu zuen, sintoma baizik. Ospitaleetan temperatura taulak erabiltzea bultzatu zuen eta etsenpluaren bidez predikatu zuen: ia 20 urte eman zituen 25.000 pazienteen gorputz temperatura behin eta berriro neurtzen eta, guztira, 1.000.000 datu inguru jaso zuen. Kontuan hartu 30 cm inguruko termometroaz hartzen ziela temperatura eta 20 minutu behar izaten zirela datua lortzeko.

Lan horren guztiaren ondorioa ere atera zuen: sukarraren muga, batez beste, 37°C-tan ezarri zuen. Baina "batez beste" hori azpimarratu zuen. Gorputz temperaturak gorabeherak izaten ditu egoera batetik bestera, pertsona batetik bestera, eta ez da muga garbia. Horregatik, ateratako ondorioak 1°C-tako akats marjina zuela aitortu zuen, hau da, sukarraren muga 36,5°C eta 37,5°C artean zegoen.

Wunderlichek erabilitako termometroetako batzuk gorde dira, eta ikerleek



Carl Reinhold August Wunderlich aitzindari izan zen gorputz temperatura neurtzen eta sukarraren muga ezartzen.

ikusi dute ez zeudela ondo kalibratuta. Medikuek pazienteen besapean hartu ohi zuen temperatura, eta emaitza, ahoan edo uzkiekin hartutakoekin alderatuta, baxuagoa izan ohi da. Tarte hori berdindu ez ezik, gainditu egiten zuten

Wunderlichek erabilitako termometro klinikoek; gaur egun badakigu sukarraren batez besteko muga pixka bat baxuagoa dela, 36'8°C-tan dagoela.

Baina arazoa ez zen 0,2 graduko akats hori, hainbesteko bilketa lana egin ondoren ezarritako gradu bateko marjina desagertzea baizik. Wunderlichen lana ingelesera itzuli zutenean, gradu zentigradoak Fahrenheit graduetara pasa zituzten eta, beraz, muga 98,6°F-tan ezarri zuten. Baina 1°Cko akats tarte hori zutenean pasa zuten; Fahrenheit gradu bateko tarte Celsius gradu batekoa baino askoz txikiagoa eta, beraz, itzulpenean tartearen erdia galdu zen, gutxi gorabehera.

Garai bertsuan, Florence Nightingalek (1820-1910) estatistikek medikuntzan zuten garrantzia aldarrikatu zuen. Nightingalaren ekarpena funtsezkoa izan zen medikuntzan eta erizaintzan, baina zehaztasunaren izenean estatistikak orokortzeak dituen arriskuak agegian uzten ditu gorputz temperaturaren kasuak. Itzulpenak murriztutako akats marjina hura erabat desagertzea eragin zuen, eta Wunderlichen 20 urtetako lan eskerga nolabait baliogabetzea.

Egun, 37°Cek markatzen dute osasunaren eta gaixotasunaren arteko muga. Eta, azken bi urteotan, eguneroko bizitzarekin jarraitzearen eta egun batzuetan isolatu behar izatearen arteko muga ere bai askorentzat. ●



## Beijingeko jokoan ondorioa

**N**egu honetako Beijingeko jokoak zeresana eman dute, besteak beste, neguko jokoak elurrik eta izotzik gabeko eremu batean antolatzeak eragiten dituen kalte ekologikoak direla eta.

Baina instalazioak eraikitzeke lanek ondorio positibo bat izan dute arkeologiarri eta historiari dagokionez: Jin

dinastiako (1115-1234) jauregi itzela. 2017an aurkitu zituzten lehen arrastoak, villa olinpikoa eraikitzen ari zirela eta, egun, aztarnategiak 140.000 metro koadroko azalera du. 72 eraikin aurkitu dituzte eta jadezko, brontzezko eta beste material batzuek egindako eskultura piloa ere bai. ●